

19/12

*i*rizpena

EAEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu-Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko irailaren 21an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 19/12

I.- SARRERA

2012ko irailaren 3an Euskal Ekonomi eta Gizarte Gaietako Batzordean Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren idazkia sartu zen. Beraren bidez, “*EAEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari*” buruzko txostena eskatu zuen, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu honen helburua Eusko Jaurlaritzak, esleituta dauzkan funtzioen eta jardun eremuen barruan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeei (Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 73. artikuluan aipatuak) emango dizkien laguntzen eta diru-laguntzen esparru orokorra arautzea da, erakunde horiek gizarte zerbitzuen esparruan, eta oro har gizarte esku hartzearen eremuan, egiten dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko.

Arau honek titulu bereko 649/2009 Dekretua ordezkutzen du. Xedapen-gorputza beraren indarraldian gertatu diren aldaketei moldatu die eta, funtsean, laguntzen eskaerak baloratzeko metodoa berrikusi du.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zitzaien Kontseiluko osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta beraien berri emateko lan batzorde egokiari, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen Araudian ezarritakoaren arabera. 2012ko irailaren 13an, Gizarte Garapeneko Batzordean bildu zen, eta hartutako akordioetatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Kontseiluaren 2012ko irailaren 21eko osoko bilkurari aurkezteko. Aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

“*EAEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuaren*” testuak zioen azalpena, 15 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen dauzka. Hona hemen edukiaren laburpen bat.

ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte esku hartze gisa definitzen du gizarte zerbitzuetan egiten den jarduera. Azaltzen duenez, pertsona, familia eta talde guztien autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzea eta babestea du helburu. Funtzio sustatzaile, prebentibo, babesle eta laguntzailea dauka, prestazio eta zerbitzu batez ere pertsonalen eta erlazionalen bidez.

19/12*i* Lege horren arabera, gizarte inklusioa gizarte zerbitzuen helburu bat da, beste sistema eta politika publiko batzuekin konpartitua. Gizarte esku hartzeak, azken finean, pertsona guztien gizarte inklusioa izan behar du helburu, baina ez da gizarte esku hartzean kontuan izan behar den ikuspegi edo zeharreko politika bakarra. Aitzitik, beste batzuk ere aipatu beharrean gaude, eta horietako batzuk Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren erantzukizunak dira beren-beregi, adibidez: familia, haurrak eta nerabeak, adineko pertsonak, mendetasun egoerak, kultur artekotasuna, eta askatasun eta dibertsitate afektibo eta sexualak.

Gizarte Zerbitzuen Legeak herritarrek gizarte zerbitzuetarako duten eskubidea bermatzen du eta, ondorioz, legean bertan ageri den katalogoan identifikatzen diren prestazio eta zerbitzu batzuen hornikuntzaren izaera publikoa baieztatzen du. Aitzitik, legeak berak irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimenarentzako laguntza publikoa aurreikusten du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuan eta Prestazioen Katalogoan sartuta ez dauden prestazio eta zerbitzuak egiteko. Gizarte zerbitzuen eremuan bestelako jarduerak egiteko laguntza publikoa ere aurreikusten du.

Gizarte esku hartzea eremu sektorial handietako bat da ongizatearen aldeko ekintzaren barruan, beste batzuekin batera: hezkuntzako esku hartzea, osasuneko esku hartzea, laneko esku hartzea, etxebizitzaren inguruko esku hartzea, eta beste batzuk. Izaera misto, koordinatu edo integratuko esku hartzeak (hala nola, gizarte eta hezkuntzakoak, gizarte eta osasunekoak, gizarte eta lanekoak, edo gizarte eta bizilekukoak) gizarte esku hartze motak direla esan dezakegu. Zeharkako politika horien gaineko erantzukizunak betetzeaz gain, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak uste du diru-laguntzen

dekretu honen xedea diren gizarte esku hartzeko jarduera guztietan ikuspegi egokiak sartu eta baloratu behar direla.

Azpimarratu behar dugu, bestalde, ekintza boluntarioa dela Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren erantzukizun peko arloetako beste bat. Horregatik, sail horrek motibazio bikoitza dauka gizarte ekimenaren babesean jarduteko, hau da, hirugarren sektore hau babesteko, gizarte esku hartzearen agertokian eta haratago ere funtsezko eragilea dena.

Testuinguru honetan, abenduaren 29ko 649/2009 Dekretuaren bidez, EAEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

19/12j

2011n autonomi erkidegoko administrazioaren sailen egitura berrantolatu zen eta bertako sailen artean eskumenen esleipena berrantolatu zen. Horren arabera, “drogamendetasunen” jardun eremua, lehen Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren mende zegoena, Osasun eta Kontsumo Sailaren eskumen eremuan sartu zen. Ondorioz, droga mendetasunen inguruko gizarte esku hartzea dekretu honetan diruz lagundu ahal diren lerroetatik at geratu behar da.

Bestalde, diru-laguntzen aurreko praktikak agerian utzi du kontzeptu eta betekizun batzuk argitu eta mugatu beharra eta testuaren kalitate araugilea hobetu beharra dagoela. Era berean, balorazio irizpideekin bat etorritz jardueri adjudikatutako puntuazioari dagokionez, eta kreditua banatzeko sistemari dagokionez, baliabideen arabera egokitu daitekeen esparru bat konfiguratu da, aurkeztutako jardueren kalitateari egokitu. Horregatik, 649/2009 Dekretua indargabetu da eta honek ordezkatu du.

XEDAPEN-GORPUTZA

Eusko Jaurlaritzak (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez) irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuei, erakunde horiek beren ekimenez gizarte esku hartzearen eremuan egiten dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko, emango dizkien diru-laguntzen esparrua arautzea da dekretu honen xedea.

Jarduera horiek Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako printzipio eta gidalerroei egokitu behar zaizkie. Halere, gizarte esku hartzea ez da agortzen arau honek aurreikusitako prestazio eta zerbitzuetan, eta besteak beste, jarduera misto, koordinatu edo integratuak hartu ahal ditu barruan, zenbait motatakoak: gizarte eta osasunekoak, gizarte eta hezkuntzakoak, gizarte lanekoak, edo gizarte eta gizarte eta bizilekukoak.

Gainera, dekretu honek araututako diru-laguntzen eskurantzaz, bereziki baloratuko da gizarte esku hartzean ondoko gai hauen inguruan zeharkako politiken ikuspegi propio bat edo gehiago izatea: gizarte inklusioa, familiaren babesa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen eta oro har kultur artekotasunaren integrazioa, adineko pertsonen eta mendetasuna duten pertsonen babesa, eta askatasun eta dibertsitate afektibo eta sexualak. Era berean, beharrezkoa izango da, betiere, genero ikuspegi izatea.

Gizarte esku hartzearen eremuan aplikatu behar den araudia dela bide, printzipio hauek gidatzen dituzten jarduerak diruz lagundu ahalko dira: prebentzioa, komunitate-ikuspegia, pertsonalizazioa, sinergia, autonomiaren sustapena, pertsonen eta taldeen parte hartzea eta jabeakuntza, normalkuntza, integrazioa eta kudeaketaren etengabeko hobekuntza.

Zentzu horretan, gizarte esku hartzearen eremuan hirugarren sektoreko jardueretarako diru-laguntzen deialdien aginduek, dekretu honetan ezarritako printzipioekin bat etorriz, diru-laguntzen lerro bakoitzerako irizpide orokor eta berezien balioa zehaztu eta ezarriko dute. Balio hori diruz lagundu ahal diren jarduerak baloratzeko eta haien artean lehentasunak aukeratzeko orduan erabiliko da gero.

Diruz lagundu ahal diren lerroei dagokienez, dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak jasoko dituzte lerro hauetan dauden jarduerak:

- Gizarte esku hartzeko jarduerak: pertsonen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatzeko eta babesteko jarduerak, batez ere esperimentazioa edo berrikuntza dakartenak.
- Gizarte esku hartzean ekintza boluntarioa eta elkarteen parte hartzea

indartzeko jarduerak. Lerro hau da erakundeetako bazkide edo langileei zuzentzen zaien bakarra, baldin eta erakunde horiek, ekintza boluntariorako eta elkartegintzako parte hartzerako bitarteko diren aldetik, berez gizarte balioa badaukate.

- Gizarte esku hartzerako jakintza erabilgarria sortzeko eta barneratzeko jarduerak, hala nola prestakuntza programak, ikerkuntza proiektuak, argitalpenak egitea eta zabaltzea, dokumentazioarekin zerikusia duten jarduerak, edo izaera teknikoko ekitaldiak (ikastaroak eta mintegiak, adibidez).

Erakunde onuradunen betebeharren artean betekizunak eta baldintzak betetzen dituela frogatzea dago, baita diru-laguntza jasotzea edo erabiltzea dakarren jarduera gauzatzea ere. Emandako diru-zenbatekoa justifikatzeko, gastua frogatzen duten agirien zerrenda aurkeztuko da. Era berean, diruz lagundutako jarduera baloratzen duen memoria bidali beharko zaio dagokion zuzendaritzari, eta bilatzen diren helburuen lorpen maila adierazi behar da.

Dekretuan araututako diru-laguntzak kudeatzeko eta ebazteko organo eskuduna Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren zuzendaritza jakin bat izango da, deialdi-aginduetan beren-beregi aipatuko dena. Zuzendaritza eskudun horri dagokion Sailburuordetzak, era berean, Balorazio Batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek diru-laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena egingo du. Kide anitzeko organo honek gehienez sei kide izango ditu. Pertsona horiek erantzukizun politikoak edo teknikoak izango dituzte arlo hauetan eskumenak dituzten Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Zuzendaritzetan gutxienez: gizarte zerbitzuetan, familian, gizarte inklusioan, inmigrazioan, haur eta nerabeen arloan, eta dibertsitate eta askatasun afektibo eta sexualetan. Pertsona horiek zuzendaritza bakoitzak proposatuko ditu.

Dekretuan araututako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Balorazio Batzordeak, jarduera bakoitzerako, diru-laguntza bakoitzerako balorazio irizpideen arabera jasotako puntuazioa zehaztuko du. Era berean, jarduera bakoitzerako diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa ezarriko du. Zenbateko hori ezin da izan, inola ere, eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

Jarduerek diru-laguntzak jaso ahal izateko gutxieneko puntuazioa ezarriko du Balorazio Batzordeak. Diru-laguntzen lerro bakoitzean aurreikusitako aurrekontu kreditua ez bada nahikoa gutxieneko puntuazioa berdintzen edo gainditzen duten jarduera guztiei gutxieneko diru-laguntza emateko, laguntzaren zenbatekoa ateratzeko banaketaren bi faseetatik ateratzen diren bi zenbatekoak batuko dira:

- Lehenengo fasean, banaketa finkoko sistema bat egongo da: Balorazio Batzordeak eskuragarri dagoen kredituaren portzentaje bat finkatuko du, gutxieneko puntuazioa berdintzen edo gainditzen duten eskaera guztien artean banatzeko.
- Bigarren fasean, banaketa finkoko sistema bat egongo da, puntuazioaren arabera aldakorra izango dena: gainerako kredituaren banaketa eskuratutako puntuazioaren arabera egingo da; puntuazio horri gehienezko diru-laguntzaren portzentaje bat egokituko zaio, aurrekontuko kreditua agortu arte.

19/12*i*

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean, gizarte esku hartzea ongizatearen aldeko ekintzaren eremu handienetako bat da, beste batzuekin batera, adibidez, hezkuntzako esku hartzea, osasuneko, enpleguaren eta etxebizitzaren gaineko esku hartzea.

Arauren katalogoan identifikatutako gizarte zerbitzuak ematean erantzukizun publikoa kontsaktatzen den arren, gizarte ekintzaren hirugarren sektoreari ere funtsezko papera ematen zaio, *Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean* ematen zaion definizioaren arabera: “herritarren taldekatze librea eta jardun antolatua, elkarteen, fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako erakunde pribatuen bidez”.

Gizarte Zerbitzuen Lege horrek Eusko Jaurlaritzaren berezko eskumen gisa identifikatzen ditu gizarte ekintzako hirugarren sektorearen sustapena eta bultzatzea. Zentzu horretan, abenduaren 29ko 649/2009 Dekretuaren bidez,

EAEEn gizarte esku hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

Arau horren proiektu-fasean irizpena egin zuen batzorde honek¹. Irizpenean positiboki baloratu zen arauaren xedea, hau da, Jaurlaritzak horretarako ematen dituen diru-laguntzak sistematizatzea, eta zeharkako izaera duten ekimenak bereziki sustatzea.

Arau hori indarrean sartu zenetik denboraldi bat igaro denez gero, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak uste du eguneratzea komeni dela. Batez ere, kontzeptu eta betekizun jakin batzuk argitu eta mugatu beharra dagoelako, testuaren kalitate araugilea hobetu beharra dagoelako, eta diru-laguntzen eskaerak baloratzeko prozedura berrikusi beharra dagoelako. 19/12j

Batzorde honek ekimen honen xedearen balorazio positiboa egiten du, hau da, indarrean dagoen araudiaren aplikazioa hobetzea, dauden baliabideen arabera egokitu ahal den esparru bat sortzeko, aurkeztutako jardueren kalitatean araberakoa. Halere, dekretu-proiektu honi buruz zenbait gogoeta egin behar ditugu.

Arau honek araudi izaera dauka, eta haren helburua “*Eusko Jaurlaritzak (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez) (...) emango dizkien laguntzen eta diru-laguntzen esparru orokorra arautzea*” da, “*gizarte esku hartzearen*” eremuan. Araua ez dagokie bakarrik behin betiko jasotzaileei (erakundeak eta pertsonak), baita, diru-laguntzen deialdiko aginduak egiteko eta emateko eta eskaerak ebazteko orduan, dekretu honek zuzenean diziplinatzen dituen saileko organoei ere.

Bere irismenean, diruz lagundu ahal diren jarduera, balizko eskatzaile eta azken onuradun asko sartzen dira. Araudi izaera duenez, esparru orokor hori zehaztu beharra dago. Hain zuzen ere, helburu hori dekretu-proiektuaren zioen azalpenean bertan adierazten da, “*gizarte esku hartzea*” beste esku hartze batzuetatik (hezkuntza, osasun, enplegu, etxebizitza eta bestelako esku hartzeetatik) bereizten denean.

1 Ikusi EGABen abenduaren 11ko 4/2009 Irizpena, EAEEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa

Aitzitik, aldi berean, gizarte esku hartze motatzat jotzen dira izaera mistoa, koordinatua edo integratua dauzkatenak, hala nola, gizarte eta hezkuntzako esku hartzea, gizarte eta osasunekoak, gizarte eta lanerako, edo gizarte eta bizilekukoa.

Jarduera misto hauen “zeharkako” gizarte izaera aipatzen eta justifikatzen da, baina ohartarazten da ez direla erantzukizunak eta eskumenak nahastu behar; kasu “misto” hauetan, zein bakoitzaren eremu sektorialari dagozkio (Osasun, Hezkuntza, Enplegu edo Etxebizitza sailak). Hori harrigarria da, arestian azaldu baita “gizarte esku hartzeko modutzat” jo behar direla.

19/12*j*

Gure iritzian, zioen azalpeneko paragrafo horiek ez dute laguntzen araudi izaera duen honelako arau bat zehazteko orduan. Hain zuzen ere, definizioko helburuak (zeharkakotasuna, laguntzen baterako ikuspegia etab) eta dekretuaren azken edukia nahasten direla ikusten dugu. Izan ere, hitzaurreko azken paragrafoetako batean azaltzen denez, EAEn gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak bakarrik arautzen dira hemen.

Gainera, itzulinguru hori guztia alferrikakoa dela esan behar dugu, amaieran adierazten baita sakoneko zioetako bat “drogamendetasunen” arloan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osasun Sailaren eskumen-eremuak argitzea dela, sailen egitura berrantolatzearen ondorioz, eta bakoitzaren funtzioak eta jardun eremuak zehaztearen ondorioz (urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretua).

Zioetako beste bat *“testuaren kalitate araugilea hobetu beharra, eta diru-laguntzen eskaerak baloratzeko prozedura berrikusi beharra”* da (aurreko dekretua, abenduaren 29ko 649/ 2009 Dekretua alegia). Ordea, aztertzen ari garen dekretu-proiektua ez da oso arrakastatsua gai honetan.

IV.- GOGOETAK ZEHATZAK

3 ARTIKULUA. IRIZPIDE KOMUNAK

Artikulu honetako 1. puntuak deialdietan aintzat hartuko diren irizpide komunak zehazten ditu. Gero, 2. puntuan, azaltzen da deialdi-aginduek zehaztuko dutela irizpide bakoitzaren balio erlatiboa.

Hain zuzen ere, irizpide komunak direlako, bi auzi sortzen dira:

- Irizpide horien ponderazioa, hau da, haien balio erlatiboaren zehaztapena, araudi honetan finkatzea komenigarria den ala ez, sailen diskrezionaltasuna ekiditeko.
- Argitu beharko litzateke “aintzat hartuko dira” esapidearen bidez zer adierazi nahi den: deialdi-agindu bakoitzean irizpide guztiak kontuan hartuko diren, ala deialdi bakoitzean irizpide batzuk edo bestek aukeratu ahalko diren.

“Irizpide komun” horiek diru-laguntzak eskuratzeko bahe erabakigarri eta konplexua diren neurrian (“irizpide komun hauek dituzten jarduerak diru-laguntza jaso ahalko dute”), uste dugu gomendagarria litzatekeela eduki horiek modu objektiboagoan eta ez hain modu diskrezionalean garatzea.

4 ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU AHAL DIREN LERROAK

3. artikuluan azaltzen da irizpide komunen bidez diruz lagundu ahal diren lerro guztietara orientatzen diren jarduerak diruz lagundu ahal direla, eta zenbait alderdi jasotzen ditu: prebentzioa, komunitate-ikuspegia, pertsonalizazioa, ...

4. artikulua, berriz, diru-laguntzetarako hiru lerro jasotzen ditu. Haietako bi gizarte esku hartzeko jarduera mantentzeko edota indartzeko dira, eta bakar bat jarduerak garatzeko (autonomia pertsonala eta komunitateko integrazioa sustatzea eta babestea).

Bestalde, 2. atalean azaltzen denez, “*ez da baztertzen jarduera batek diru-laguntzen bidezko finantzazioa zenbait urtez jarraian jasotzea, urteko deialdien*

bidez egitea gorabehera, baldin eta heltze eta zabaltze prozesuak hala eskatzen badu, harik eta diru-laguntzen esparrutik kanpoko iraunkortasuna lortu arte”.

Uste dugu proiektuek diru-laguntza beharrik gabe heldutasuna izateko eta iraunkortasuna lortzeko behar duten denbora mugatzea beharrezkoa dela (2, 3, 5, ... urte).

5.2 ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BETEKIZUN OROKORRAK

Dekretu-proiektuak agintzen duenez, *“zenbait erakundek jarduera bakarra egiten badute, modu lotuan aurkeztu ahal dute, eta ez da beharrezkoa erakunde horiek nortasun juridiko propioa duen elkarte bat sortzea”.*

Batzordeak uste du esaldi horretan “bakar” hitza “bera” hitzaz ordezkatu behar dela. Lehenengo aukerak, izan ere, ez du behar bezala azaltzen atal honen idazkuntza osoan azaltzen dena: “...jarduera bera...”, “...beretik abiatzen dena ...”, “jarduerarako aurrekontu oso bera ...”

Gainera, adierazten da erakunde guztiek eskatutako zenbatekoen batura ezin dela izan aurrekontu osoa baino handiagoa. Eskatutako zenbatekoak dagoen zenbatekoa baino handiagoa (baina ez esleitutakoa baino handiagoa) izan daitekeela kontuan izanik, “eskatutako zenbatekoak” kendu eta “esleitutako zenbatekoa” jartzea proposatzen dugu.

6 ARTIKULUA. DEIALDIAK

Lehenik eta behin artikulu honetako 1. puntuan aldaketa hau egitea gomendatzen dugu:

*“1. Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordearen ~~agindu baten edo gehiagoren bidez~~ **aginduaren bidez** egiten diren deialdiekin hasiko da dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura”.*

Bestalde, 2.c) puntuan azaltzen da deialdi bakoitzean, besteak beste, adjudikazio irizpideen ponderazioa mugatuko dela. Puntu honetan, 3. artikuluari buruzko

gogoetetan irizpide komunei buruz esandakoa errepikatu behar dugu. Haien ponderazioa araudian ezarrita geratuko dela onartzen bada, c) atal hau auzitan jarriko litzateke.

Besterik da deialdiaren “irizpide espezifikoei” buruz dihardutela, bertan mugatu beharko liratekeenak. Uste dugu, hori esan nahi bada, testua argiagoa eta zehatzagoa izan beharko litzatekeela.

Azkenik, 2.e) puntuan, organo eskudunen artean, instrukzioarena aipatzen da, eta ondo dago. Baina horri buruz arreta deitu nahi dugu: beranduago, zehazki 13. artikuluan (“Diru-laguntza lerroen kudeaketa”) eta 14 eta 15. artikuluetan, eskaeren balorazioari eta ebazpen-proposamenari eta ebazpenari buruzkoetan, instrukzio organo hori ez da aipatzen kudeaketarako eta ebazpenerako izendatzen diren organoen artean.

19/12j

7 ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

2. atalean esaten da “*diru-laguntzen lerro bakoitzeko aurrekontu kredituaren zenbateko osoa aldatu egin ahalko dela, diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan izanik, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bestelako diru-laguntzen lerroak gauzatzean agortuta geratzen ez diren aurrekontu-gerakinen arabera, ebazpena eman aurretik. Inguruabar horren berri eman beharko da dagokion zuzendaritzaren ebazpenaren bidez*”.

Gure ustez, honelako arau batean (araudi izaera duena) ez da bidezkoa adieraztea diru-laguntzen lerro bakoitzeko kredituaren zenbatekoa aldatu ahal dela. Araudi honetan aldaketak egiteko aukera hori aipatu ez arren, eta horrenbestez “aurrekontuaren aldarazpena” ez den arren, aukera hori sailtako arduradunen eskumenetako bat da, esleitu zaizkien aurrekontuei dagokienean. Beraz, ez dirudi egokia aukera bat dela esatea.

Besterik litzateke “aldatu ahalko da” esan beharrean “aldatu beharko da” esatea. Horrek esan nahi luke, 2. puntu honetan azaltzen diren inguruabarretan, saileko arduradunak diru-laguntzen lerro bakoitzeko zenbatekoak aldatu beharko dituela, eta horrela beraren eskumenak mugatuko lirateke.

Nolanahi ere, artikuluko lehenengo atalean adierazten da “*aurrekontuko ekitaldi bakoitzean eman beharreko diru-laguntzen bolumen osoak ez duela gaindituko kontsignazioa edo bere eguneratzetik ondorioztatzen den kontsignazioa...*”. Horregatik, idazkuntza hori osatzea gomendatzen dugu; zehaztu beharko litzateke bolumen horrek ez duela kontsignazioa lehenengo instantzian gaindituko, ikusi baitugu 2. atalak beraren aldarazpena arautzen duela.

10 ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU AHAL DIREN GASTUAK, FINANTZAZIOA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Artikulu honetako lehenengo atalak honakoa dio:

19/12j

“1. Jarduera baterako diru-laguntzak eman ahalko dira erakundeko soldatapeko langileen kostuak ordaintzeko (jarduera horretan duten dedikaziorako), baita beste kostu estruktural batzuk ordaintzeko ere, portzentaje finko jakin baten bidez, azpiegitura fisikoenak barne, zeharkako gastutzat joko direnak. Portzentaje horretarako gehienezko muga bat jarriko da diru-laguntzen lerro bakoitzerako, dekretu hau garatzeko agindu egokietan”.

Uste dugu egokia dela agindu bakoitzak finkatu dezala, zehatz-mehatz, zeharkako gastu izendatu behar diren kostu estrukturalen portzentajea. Baina gehienezko muga araututa egon beharko litzateke (era berean, 10.3 artikuluan muga bat jartzen da, %80a, onesten den aurrekontuaren finantzaziorako).

Era berean, 2. atalak adierazten duenez, “*finantzazioa jaso ahal izateko, mailegua aurkeztutako jarduerarako izan behar da berariaz, eta haren zenbatekoa ezin izango da jarduera garatzeko eskatu den zenbatekoa baino handiagoa*”. Finantzazioa jaso dezakeenaren definizio hau nahiko soila da. Bere garapen-aginduan, onartu ahal diren finantza gastuen estaldura hobeto definitu beharko litzateke (maileguaren epea, estaldura-zenbatekoa etab).

12 ARTIKULUA. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Artikulu honen b) atalean adierazten denez, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeen betebeharren artean hauxe dago: *“bai eskaera egiteko unean, bai horren ondoren, gertatzen den edozein aldaketa idatziz jakinaraztea Zuzendaritza egokiari, baldin eta aldaketa horrek eragina badauka diru-laguntzak emateko exijitu diren eta kontuan izan diren betekizunetan. Jakinarazpen hori ahalik eta lasterren egin behar da”*.

Testuak dioena ikusita, bermatu beharko litzateke *“diru-laguntzak emateko exijitu diren eta kontuan izan diren betekizunetan”* eragina duten aldaketak jakinarazi egiten direla, bai eta berandutu gabe egiten direla ere. Izan ere, horrek ondorio ekonomikoak izan litzakete, batez ere diru publikoa dela kontuan izanik.

Gure iritzian, “ahalik eta lasterren” esaeraren zehaztugabetasuna beste batekin ordezkatu behar da, jakinarazpena egiteko epe zehatz bat jartzen duena.

Gai hau ez da huskeria: emakidaren unean onetsitako diru-laguntzaren %60 aurreratzen bada (ikus 10.4 artikulua), erakundeekin zorrotzak izan beharra dago diru-laguntzak ekarri zituzten baldintzak betetzeari eta mantentzeari dagokienez. Horregatik, aldaketarik gertatzen bada, aldaketa horiek ezarritako epeetan jakinarazi beharrekin ere zorrotzak izan beharra dago.

Gauza bera esan liteke artikulu bereko c) atalari buruz, xede bererako administrazioen edota erakunde publiko nahiz pribatuen diru-laguntzak edo laguntzak, sarrerak edo baliabideak eskuratzea jakinarazi beharraren gainekoa.

13. ARTIKULUA, DIRU-LAGUNTZA LERROEN KUDEAKETA, ETA 14. ARTIKULUA, ESKAEREN BALORAZIOA, EBAZPEN PROPOSAMENA ETA FINANTZAZIOA

Lehenik eta behin, artikulu honetako 1. atalean adierazten da organo eskuduna Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Zuzendaritza izango dela. Sailaren izendapenaren ordezkari “Enplegu eta Gizarte Gaietan eskuduna den

saila” aipatzea gomendatzen dugu.

Bestalde, 6.2 e) artikulua jardutean, esan dugu artikulua horietan ez dela Instrukzio Organoa aipatzen. Baina prozedura instruitzea erabat beharrezkoa da eta deialdi egokian izendatzen den organoari egokitu behar zaio (ikus Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 4. artikulua, “Instrukzio” izenburua duena, eta arau bereko 22.1 artikulua²).

Era berean, 13. artikuluko 3 eta 4. ataletan aldaketa hauek egitea gomendatzen dugu, idazkuntza hobetze aldera:

19/12j

*“3. ~~Kide anitzeko organo horrek~~ **Balorazio Batzordeak** gehienez sei kide izango ditu. Pertsona horiek goi-karguak, funtzionarioak edo lan-kontratudun langileak izango dira arlo hauetan eskumenak dituzten Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Zuzendaritzetan, gutxienez: gizarte zerbitzuetan, familian, gizarte inklusioan, inmigrazioan eta kultur artekotasunean, haur eta nerabeen arloan, eta dibertsitate eta askatasun afektibo eta sexualetan. Pertsona horiek zuzendaritza bakoitzak proposatuko ditu. ~~Balorazio Batzordean~~ **Batzorde horretan** bi sexuen presentzia orekatua egoteko neurri egokiak hartuko dira.*

*4. Zuzendaritzako funtzionario edo lan-kontratudun langile batek (kasu bakoitzean, diru-laguntzen lerroaren kudeatzailea denak) ~~kide anitzeko organoko~~ **Balorazio Batzordeko** idazkari lanak egingo ditu. Organo horien osaera EHAAn argitaratuko da”.*

14. ARTIKULUA. ESKAERAK BALORATZEA, EBAZPEN PROPOSAMENA ETA FINANTZAZIOA

4. atalean adierazi da dekretu hau garatzeko aginduetan zenbait formula finkatuko direla, haien bitartez sektoreetako edo zeharkako politika edo ikuspegiak beren lekua izan dezaten. Horri buruz gogoeta orokorretan azaldu duguna errepikatu behar dugu, alegia, zioen azalpenean aipatutako

2 Zalantzak sortu dira Diru-laguntzen Lege Orokorraren 22.1 artikuluan ondokoa aipatu delako berariaz: “Kasu honetan, eta administrazio publikoek autoantolatetarako duten gaitasunetik eratorri ahal diren espezialitateak gorabehera, emakida-proposamena organo emaileari egingo dio kide anitzeko organo batek, organo instruktorearen bidez”.

zeharkakotasunaren, baterako ikuspegiaren eta abarrekoen helburuak ez datozela bat dekretuak gerora, bere garapenean, adierazten duenarekin.

AZKEN GOGOETA

Bukatzeko, bidezkoa ez den arren (baldintzaren bat betetzen ez delako) jasotzen diren diru-laguntzak itzultzeko prozedurak arautzen duen artikulua bat edo gehiago beharko lirateke. Eta, honi loturik, deigarria da 15.4 artikuluan “jaso beharreko diru-zenbatekoa gainditzen duen diru-zenbatekoa” itzuli beharraz bakarrik hitz egitea: hori gauza bat da, eta bidezkoa izan ez arren diru-laguntza jasotzea (nahitaezko betekizunak ez betetzeagatik) beste gauza bat da.

19/12j

V.- ONDORIOA

Euskal EGABek uste du “*EAE*n gizarte esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua” izapidetzea egokia dela, kontsulta-organo honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean.

O.E. Lehendakaria
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1602-12